

## **BILBOKO JESULAGUNAK JAURERRIAN (1604-1767)**

*Karmel* aldizkariaren aurreko bi zenbakietan ikusi dugu Bilboko jesulagunen San Andres Ikastetxea Ordenako zein tesuingurutan begiratu beharko litzatekeen, eta behatu dugu Lagundiak Etxe horretarako egindako pertsonal-ekarpena zenbatekoa eta nolakoa izan zen. Jaso eta eraturako errealitate hori bizitzan eta ekimenetan nola loratu zen arakatuko dugu oraingoan, eta loratu, ez Bilbon bakarrik, baita Jaurretian ere. Bizkaiko historialariek gogoan izan dute hori, Labairuk bereziki.

### **Hasierako oinarriak**

San Andres Ikastetxea sortutzat eman daiteke 1604an; baina horren aurretik ere saiatu ziren jesulagunak Jaurretian leku bat irabazten. Horren aurretik, aipatu beharra dago, gainera, jada Iruñeko Ikastetxea (La Anunciada) irekita zegoela, hain zuzen Antzinako Lagundiaren Euskal Herriko handiena izango zena (1580), Tuterakoarekin bateratsu hain zuzen (1578, 1600), eta era berean lanean ari zirela Bergara eta Azkoitiko Lagunarte txikiagoak.

San Ignazio interesaturik zegoen Bizkaian Lagundiaren egoitzaren bat izateko, ahal zelarik Ikastetxea. Lehenengo sarrerera-saioen artean egon ziren Bilbo bera, Begoña eta Bermeo. Ignaziok aginduta, Frantzisko Borjakok bisitaldi-itzuli bat egin

zuen Bilbora, aurkeztu zitzaizkion eskaintzak balioets zitzan; baina guztiei ere ez zien irtenbide onik ikusi (1552), eta Ignazio behin eta berriz saiatu zen arren, asmoak ez zuen aurkitu aterabiderik.

Orduan, Bermeokoak urrats hobeak eman zituen, proposamen landua eta Ignaziok onartua izatera iritsi baitzen (1552-1556). Hori zela eta, Erromatik bidalitako fundaziorako agiri sinatua Loiolan egon da gordeta.

XVI. mendeko azken hamarkadan hasi ziren mugitzen berriro Bizkaiko urak, eta Gaztelako Probintziala proposamen tentagarria eskuetan zuela etorri ahal izan zen Bilbora 1594an: Magdalena Centurione andereak legatu bat utzi zion Lagundiari, honek zerizkion lekuan Ikastetxea eraikitzeko. Bilbo hautatu, eta bertara etorri zen eskaintza egitera Probintziala; baina Udalean ez zen egon adostasunik baiezko garbi bat emateko. Argi ageri zen Lagundiaren interesa, baina Bilbon indarrean zeuden interes kontrajarriek bidea itxi zuten, nonbait.

Urte gutxi geroago, 1599an, Lagundiak berriro bere eskaintza-eskeak egin zituelarik, Kontzejuan baiezkoa eman zitzaion, baldintza zail batekin: 1.500 dukateko errenta ekarri behar zutela jesulagunek, maisuak mantendu eta herriko semeei eskola doan eman ahal izateko. Baimena lortzearena samurragoa izan zen oraingoan, diruarena ez, ordea, harik eta Domingo Gorgolla bilbotarrak, bere testamentuan (1602), behar ziren 1.500 dukatak segurtatu zituen arte (Labayru 1967: V, 15-16):

Item mando que [...], deseando también hacer este bien [de doctrina y sacramentos] a mi patria que es la Villa de Bilbao y a toda aquella tierra, y sabiendo qu n a prop sito es la religi n de la Compa n a de Jes s [...], y que para esto funda y aceta fundaciones de colexios, me e determinado de fundar un colexio, de la dha. Compa n a en la dicha Villa de Bilbao, patria m a, y doctarla de mi hacienda como por este mi testamento y  ltima voluntad la doto en renta de mill y quinientos ducados.

Hori erabaki ondoren, testamentu berak irmoki baieztatzen du nolako lanetarako izan behar duen legatu horrek: “pedricar, confesar, leer [eskola eman, alegia], enseñar la doctrina christiana y salir a misiones por los pueblos comarcanos” izango ziren egiteko nagusiak, errukizko obra onekin batera (ospitale, presondegi eta etxeetan).

## **Ekonomiatik gizartera**

Lehen hamarkadatik hasita bilatu zituen Ikastetxeak baliabide berriak, herritar eta Udaletxearekin harremanetan, hurbildu zitzaizkion ongileen laguntzaren bidez. 1605ean Ikastetxe inguruak garbitzen lagundu zuen Udaletxeak; hurrengo urtean, berriz, Bilboko Ikastetxearen ekonomiari laguntzeko Gautegiz-Arteagan etxea eta orubea eskuratu zituen, Leonor Ganboa Arteagak emanda (Labayru 1967: V, 34, 43-44).

Ikastetxearen zeregin akademiko-pastoralak ere urratsak ematen hasita zeuden, eta 1611n, latin-katedra mantendu eta dotrina doan eman zitezen, hitzarmena sinatu zuten Udalak eta Ikastetxeak, zereginari heltzeko lehen ekarpena egin (400 dukat) eta hurrengo zortzi urteetarako urteroko laguntza segurtaturik (200 dukat), aldi berean geroko urteetarako ere Udalaren laguntza-borondatea adierazita, “para que con esto esta dicha Villa sea servida, y sus hijos y naturales ayudados en letras y virtud” (Labayru 1967: V, 57).

Oinarri ekonomikoak sortze honek, belaunez belaun bere bidea egin zuen, eta ezagutzen dugu Bilboko Ikastetxearen 1759. urteko *juro* deitzen egoera (hau da, ondasun jakin batzuen gain Ikastetxeak jaso zitzakeen urteroko errenta hitzartuak): urtero *jurotan* San Andresera zetorren errenta osoa 728.691 maraikoaren (*maravedi*), Bilbon eta Euskal Herritik kanpo zeuden ondasunen gain zetorrena (Gaztela, León, Sevilla, Cuenca, Palencia eta abarretan zeudenak). Ikastetxearen sostengua, eratu zitzaizkion fundazio eta dohaintzetan zegoen, bakoitzak irakas-egite-

koren bat sostengatzen zuela (Labayru 1967: V, 333, 360). Balia-bide horien bizkar, ondoko jardunean Ikastetxeak bere bilbotartasuna irabazi ahal izan zuen, ematen ari zen zerbitzuengatik eta bilbotarren iritziak bere alde irabazita.

Zerbait geroago, Udalak pobreentzako beste Eskolarako Anaia jesulagunak eskatu zituen (nahiz eta ez dakigun, jakin, gogo hori egintzetara eraman zenentz); hala ere, zaguna zen, gainera, nola biltzen ziren astean bi bider Ikastetxean eskeko txiroak, dotrina hartu eta eskolatzeko. Guztiaren ondorioz edo, badakigu 1621ean bertako Errektore Aita Aranak Lagundiarekiko giro ona ikusten zuela Bilbon: “ésta es una de las villas que más nos aman y más estiman nuestros ministerios”, idatzi zuen; (Malaxechevarria 1926: 576; 220).

XVII. mendeko hirugarren hamarkadan (1624), garrantzizko aurrera-pausoa eman zen Ikastetxeari lantegi erosoago eta zabalagoa emateko: Udalaren eta Lagundiaren arteko eskritura egin zen “sobre permuta de suelos para regularizar la planta del edificio de la nueva iglesia y colegio que trataban de construir los jesuitas”. Lagundiaren Bilborako gogoia ez da, beraz, batere hoztu, alderantziz, garapen hobe baterako oinarriak jarri nahi zituzten jesulagunek, eta Udalak, bere aldetik, eliza eder batekin eta kaleak eraberrituta auzoari jite berria emateko neurriak hartu (Labayru 1967: V, 143-144):

...digeron el dicho Rector [Aita Antonio Arana] y Padre de dicha Compañía trataban de edificar y hazer una yglesia nueva en la rronda que sale al portal de Çamudio y la calle de Ascao deshaziendo la yglesia vieja, de que al presente se sirve la Compañía de Jesús que a de ser la nueva que agora quieren edificar de la suntuosidad, traça y medidas que para ello se an acordado.

## Jakin eta irakasten

San Andres Ikastetxeko erlijiosoen lehen Lagunartea ez zen osatu bereziki bilbotarrekin, baina laster ez zen falta izan Lagundian jesulagun bilbotarrik eta batzuetan bilbotar horiek San Andres-en ere bizi izan ziren. Ezagutzen den lehen jesulagun bilbotarra Martin Eguzkitza da: Bilbon jaio zen (1529), eta denbora luzez Araoz Espainiako jesulagunen Nagusiaren laguntzaile gisara ibili ondoren, San Ignaziok hartu zuen Lagundian, loiolatarra Erroman hil baino 27 egun lehenago. Gero, Indiarako irten aurretik, Lisboan egin zen apaiz Eguzkitza (1563), eta Goan hil zen 1572n (Sans 2012).

Latin-katedrarako 1611ko hitzarmenak ez zuen, nonbait, Udalaren aldetik segida leialik izan, eta 1636an Lagundiak utzi egin zuen Katedra, irakasgai hori ematen hogeita bost urtetan jardun ondoren. Zalantzarik gabe, Udalari abisua pasatu nahi izan zion Ordenak, hitzarmen berri baten eske. Arazoa ez zen Bilboko Udalaren kontua bakarrik izan, Erromatik Prepositu Jeneralak, Aita M. Viteleschik, esku izan baitzuen konponketa berrian, eta 1637an sinatu ahal izan zen Ikastetxeari baldintza hobek eman zizkion hitzarmena. Latinarena, beraz, berriro segurtaturik geratu zen, Udalaren laguntzaz eta Lagundiko Nagusien onarpenarekin (Labayru 1967: V, 2662-267, 702).

Latina eta Humanitateak ikasten zebiltzanek ordutegi bete izaten zuten Lagundiko Ikastetxeetan, izan ere zazpi-zortzi ordukoa zen eguneroko jarduna. Jesulagunen Euskal Herriko Ikastetxeetan ez zen egon ikasleentzako barnetegirik, baizik eta ikasle bakoitza (denak mutilak), bere sendian bizi zela, eskolarako joan-etorrian ibili ohi zen, goiz, eguerdi eta iluntzetan (Mala-xechevarria 1926: 248).

Eskola-liburutan, ezaguna da, bestalde, jesulagunak Bilbora etorri aurretik ere, Hiribilduko Latin-Eskolatan eskueran zeuden humanisten eta idazle klasikoen idazlanak zeintzuk ziren: hasi berrientzat, Nebrija edo Vives, eta aurreratuentzat Zizeronen gutunak, Virgilio, Terentzio, etab.; jesulagunek, gainera, eskola-li-

buru hautatuak izan zituzten XVII-XVIII. mendeetan (Malaxechevarria 1926: 252-254).

Ikasgelako jardunetik aparte, jakitatean aurrera egin ahala, Lagundiko Ikastetxeetan ohikoa izan zen “Akademiak” egin eta kultur ekitaldiak ospatzea, jendaurrean hitzaldiak eman eta eztabaidak eskainiz. Horrelakoak zer ziren jakiteko, badugu adibide argitaratu bat. (Malaxechevarria 1926: 257-274).

San Andresen kasuan, historialariek bereziki gogorarazi dute, Aita Gabriel Henao jesulagunak antolatutakoa, gero argitalpen oroigarria ere izan zuena (*Vizcaya illustranda. Ab adademicis Humaniorum Literarum Bilbaensis Schola Societatis Iesu*. [...]. Cesareaugustae: Ex Typographia Ioannis a la Naxa.1637).

Lau hitzalditan burutu zen Henaok gidatutako ekitaldia, lehenengoak euskararen jatorriaz ziharduen, bigarrenak Euskal Herriaren betidaniko askatasunaz, hirugarrenak borrokatzeko kantabriarrek (=euskotarrek) omen zuten ohitura bitxiaz (ezker oina ortozik zutela, alegia) eta laugarrenak Bilboko Antzinateaz. Bistan da, honelako gaiek, ikasketen testuinguru humanistiko unibertsalean eskainiak izanik ere, Ikastetxearen bertakotasuna erakutsi nahi zutela, muga jakinen barruan (Mañaricua 1973: 194-196).

Lagundia Kontrarreformaren baitan garatu zen, baina baita Errenazimentu humanistaren testuinguruan ere, eta horrek bere baldintzak izan zituen, tokiko herrien kultura eta hizkuntzentzat. *Ratio studiorum* aipatuak (1599), esateko, lekurik zainduena eman zien hizkuntzei (klasikoei, biblikoiei eta Koroek babesten zituzten mintzaireri) (Demoustier 1997: 301-302); baina herri hizkuntza ez babestuei lekurik apenas geratu zitzaizen ikaskuntzaren eskema hartan. Erran gabe doa, ikasbidean gora egin ahala irakas-tresna latina zela (ezaguna da, bestalde, San Ignaziok latina ongi menderatzeari eta Irakaskuntzan ez ezik Lagundian ere erabiltzeari eman zion garrantzia) (Compañía de Jesús 1993: 366, 381, 382, 456, 484, 538, 675 art.).

## Ospakizun-jaietan

Oro har, Lagundiko ospakizun-egun handietan horrelako kultur ekitaldiek beti izaten zuten lekurik, jesulagun santuen kanonizazio-ospakuntzetan, adibidez: guztien aurretik San Ignazio eta Xabier-enak (1622, 1640), San Luis Gonzaga eta Estanislao Kostka mendebete geroago (1727) edo Frantzisko Regis-ena (1738) gogora daitezke (Labayru 1926: VI, 152, 208). 1640an Lagundiaren sortze-mendeurrena ospatu zen hainbat tokitan, eta Bilbon, kasu honetan antzerti emankizunak antolatuta (Labayru 1967: V, 304). Konpaniako Santu ereduon honek itzal handia zuen fededunen artean, jendearen eliz harremanak lotzeko.

Jaiera erlijioso hauek, Lagundia eta gizarte zibilaren bizitza, biak, ukitzen zituzten, eta San Ignazioren santu-egiteak eta horren karietara Bilbon egindako ospakizunek azkenean Santuaren Bizkaiko Zaindaritza ekarri zuten, Jaurerriak ere halaxe nahita (1681-1682), hain zuzen jesulagunak, azkenik, Loiolan ere sartu ziren une bertsuan. Ospakizun ignaziotarrak handiak izan ziren Jaurerriari eta Bilbon. Antolakuntza arretatsua izan zuten Aita Santuak Jaurerriari San Ignazioren Zaindaritza onartu zioneko jaiak (Labayru 1967: V, 507, 515-516):

Comenzaron los festejos el 6 de Agosto con un repique general de las iglesias y conventos de la Villa de Bilbao [...]. A las cuatro de la tarde el Regimiento General, precedida de la nobleza de Bizcaya y lo más escogido de la juventud hidalga bilbaína, su cuerpo de caballeros, hacendados y comerciantes, se dirigió a la iglesia mencionada [de San Andrés]. [...]. La orquesta resultó magnífica. Asistieron tres capillas de músicos: la de la Villa, la de los religiosos de San Francisco y la de la catedral de Pamplona, que expresamente vino a ello. [...]. Mientras así se honraba a éste [a San Ignacio] en la iglesia, multitud de salvas y cohetes contribuían a dar animación al gentío que discurría por las calles y llenaba el Portal de Zamudio y desem-

bocadura contigua al Colegio de la Compañía. El Ayuntamiento de Bilbao no quiso quedarse atrás. Contribuyó a las vísperas y demás fiestas y se asoció a los gastos.

### **Jakintza eremu berrietan**

Eliz jaiera eta aldarriek beren lekua zuten, eta Ikastetxearen izen oneko urte haietan eskola-bizitzak aurrera egin zuen. Hain zuzen, orduan eman zen San Andres-en garrantzizko urrats berri bat (1691-1693), 1691n Pedro Ernani apaiz zeberio-tarrak bere ondasunetatik jesulagun birentzako mantenua segurtatu zuenean, bata Morala irakasteko, eta bestea predikulan jarduteko, herrietan misioak emanez batik bat. Bi jesulagun bilbotar izendatu ziren zeregin horietarako: Manuel Ibaizabalen esku geratu zen Moraleko katedra, eta Aita Jose Olabek heldu zion misiolari-lanari (Malaxechevarria 1926: 446-447).

Zertxobait geroago (1708-1714), Filosofiari (Logika, Fisika eta Metafisika) eta Teologiari ere beren lekua emateko aukera egokitu zen, Migel Vélez de Larrea bilbotarrak emandako laguntzen ondorioz. Berean jarraitu zuten katedra hauek ere, 1767a arte. Sortzean, Bilbon Filosofia eta Teologia irakasten ziztuzten Ibaizabal eta Aita James Valois irlandarra nortasun akademiko ezagunekoak ziren Lagundian (Malaxechevarria 1926: 347, 483; 456-460).

Jaurreriak lanbide-prestakuntza eskatzen zuten ogibideak zituen, eta, hortaz, baserritik kanpoko lanbideetarako jendea doitu beharra; premia horri XVIII. mendean jakite tekniko berrien bidez ere erantzun nahi izan zitzaion. 1725ean, bada, itsas lanetan jarduteko zirenei prestakuntza hobea eman nahirik, Matematikako katedra sortu nahi izan zuen Bilboko Batzar-  
rarak, eta San Andres Ikastetxean Larreak sortu katedretako bat Nautika ematen jarri (Labayru 1969: VI, 140).



Honetarako beharrizana nabaria zen, baina katedra hartako gai-trukaketa ez zen egin, nonbait, eta gerora Miguel Archer eta bestek gidatutako Nautika-Eskola lagundu zuen Udalak. Euskal Herriaz ari den bere liburuan, Malatsetxebarriak jesulagunen irakaskuntza matematikoaren historiaz idatzitako kapitulu aski luzean ezin izan zuen deus esan, Bilboko jesulagunen Nautikaz (Malaxechevarria 1926: 385-400, 406-407).

### **Udal eta Jaurerriarekin**

1700ekoa da San Andres-eko zenbait irakaslek Bilbon eta Jaurerrian izan zezaketen ospea erakusten digun pasadizoa. Nafarroan Aita Moret jesulagunarekin gertatu zenaren antzera (1654), San Andreseko jesulagunen artetik Jaurerriak bere Kronikari ofiziala nahi zuen eta ondo ezagutzen ez ditugun historialari-merituengatik Aita Manuel Ibaizabal hautatu zuten Batzarrek horretarako, Prepositu Jeneralari izendapena onartzeko eskatuz. Egia esan, ez dakigu Ibaizabalek Nagusien baimenik izan zuenik, ezta Kronikari-zeregin horretan deus idatzita utzi zuenik ere (Labayru 1967: V, 597; Malaxechevarria 1926: 294).

Jaurerriaren memoria historikoa zaintzeko asmo horrek baidu zerikusirik, gainera, Batzarrek 1741ean hartu zuten beste erabaki batekin. Jaurerriak, noski, Gernikan zuen bere artxibo historikoa, baina egunean eguneko eginkizunek hainbat agiri ofizial eskueran izatea eskatzen zuten, eta horretarako Bilbon eduki ohi zen beste “eskuko artxiboa” (*archivo manual* deitzen zena). Batzarrek bazuten San Andres Ikastetxean zenbait Diputazio-bileretarako erabili ohi zuten areto bat, eta eskuko artxibo hori hemen gordetzea deliberatu zuten aipatu data horretan: “se mandó se colocasen y guardasen en el salón del Colegio de la Compañía, poniéndolos con sus índices y fabricando al efecto una estantería” (Labayru 1967: VI, 234).

Jakina denez, Aro Modernoa Erdi Aroan eraikitako Kristandade-giroko mundua zen, artean, gehienbat Eliza zen gizarteko

pentsaerak eta ohiturak moldatzen zituena, eta aginte zibilak ere sinesmen eta kode kristauen alde egin ohi zuen, ez beti, ordea, talka esanguratsurik gabe. Inoiz tirabirarik ere gertatu zen, bada, Bilbon, jesulagunen eta herriko eliteen artean.

Udala eta Ikastetxea, Jaurerria eta Lagundia sistema bat beraren bi alde elkar osagarriak ziren, baina ikusmolde eta interes kontrajarriak izan zitzaizketen bi alde ere bai. Une jakin batzuetan garbi agertu zen hori, predikuan bezala merkatal etika edo politikan ere, azken buruan Udalerriko klase jakinen batek Lagundia etxean baino erbestean nahiago izateraino. Ikusiko dugu.

### **Eliz zereginetan eta predikuan**

San Andreseko honek Ikastetxe izaera zuen arren, bertako irakasleek berek ere bai eta propio eliz zereginetarako zeuden jesulagunek (*operario* deituek), zerbitzu pastoraletan esku hartzen zuten (ikusitako dugu hori). Ohikoa zen misioak emateko norbait egotea, eta Ikastetxetik kanpo herrietan jardutea; horiek are herritarrago egiten zuen Lagundia.

Antzinako Lagundiaren azken mendean, gainera, sona handiko predikari jesulagunak etorri ziren Bilbora, inoiz Agustín Kardaberaz hernaniarra bezala bertan bizitzera ere bai, edo noizbait Penintsula osoan izen handia zuenen bat edo beste bere misio-aldia ematera; Aita Pedro Calatayud tafallarra izan zen horietakoa.

Herri eta hirietako Misio haiek herritar andana biltzen zuten, garai haietan; Bilbon Aita Calatayud-ek 1732an emandakoa honela zenbatzen digu historialariak (Astrain 1925: VII, 101-103):

En la procesión de penitencia se reunieron de 24 a 26.000 personas. En la parroquia de Santiago comulgaron el día de Santa Ana más de 14.000 y en los días siguientes y en otras iglesias algunos millares más.

Hurrengo urtean, Kardaberaz da Bilbon dabilena (1731-1734), bizi ere bertan bizi baitzen orduan gramatika-irakasle gisara, eta 1733an horretan egin zuen gerora Lagundiaren jaierra zabaldua izan den Jesusen Bihotzaren debozioaren lehen predikua, San Anton parrokian (Akesolo 1971: 57-72; Pérez/Zulaika 2004: *passim*; bereziki Altuna 2004: 29-39). Jaierra honek bere teologia eta pastorala garatuko ditu, eta herritar xumeenganaino iristeko balio izan zuen, XVIII. mendetik aurrera, fededunen sare sozial baten barruan (Nicolau/Viscardi, “Corazón de Jesús, Devoción” in DHSJ).

Aita Calatayud-ek tokiko 400dik gora Kofradia sortu omen zituen, eta Bizkaian ere berehala eratu ziren Jesusen Bihotzaren halako elkarteak, horretan herriz herri ibili baitzen Kardaberaz: 1737an Mungia, Bakio, Erandio edo Munitibarren, 1741ean Berriz eta Zornotzan, eta abar (Akesolo 1971: 62).

Gai honetaz idatzi zuten euskaldunak gogorarazten dizkigu Labairuk: Joan Loiolakoa (jesulaguna), Orbe Larreategi (artzapezpikua), Ordeñana jesulagun bilbotarra; eta horiekin batera azpimarra dezadan Mendibururen euskarazko ekarpena, hain zuzen kasu honetan Jesusen Bihotzarekiko jaierraz ari zena. Garaiko komentzimendu eta lanak ziren (Labayru 1969: VI, 186-187; Mendiburu 1747).

Lagundiko espiritualitatearen lanabes pastoral eta ikurretako bat bilakatu zen jaierra hau, besteak beste Ordena euskal gizar-tean egoteko modu bat, alegia. XX. mendean ere, “Jesus’en Biotzaren Deya”, “Mensajero del Corazón de Jesús”, Egutegia eta Mensajero argitaletxea dira horren lekuko ezagunenak; guztiok, jakina denez, Bilbon izan dute beren sorlekua.

XVIII. mendean, gora egindako Ikastetxe baten aurrean gaudela Bilboko San Andres-en, ondasunetan ongi finkatua zegoelako, bertan zegoen Lagunarte handiagoagatik, Irakaskuntzan bezalatsu bestelako eliz lanbideetan jesulagunek zuten oihartzunagatik, oro har Lagundiari aldekoek eta aurkakoeke ematen zioten

garrantziagatik. Garrantziaren honek, ordea, Bilbokoarekin zerkusia izan zuten arazo zabalagoetara garamatza.

## **Bilboko indar betetik Italiako erbestaldira**

“Argien” XVIII. mendean, Lagundia arazo politiko bilakatu zen: pentsamoldez biziki aldatuz zetorren gizarte harentzat jesulagunen Ikastetxe-sarea gehiegizko botere soziala gertatu zen, hau da, sakoneko aldakuntzak egin ahal izateko atzerakarga iritzi zitzaion.

Garaiko pentsamendu “argizatuak”, jansenismo politikoak eta Monarkia borboitarrek aukera ona aurkitu zuten itzulinguru hartan, sobera handia gertatzen ari zen Lagundia inautesteko (Heer 1964: 12-20; Pinedo dhsj: s.v. “Expulsión”).

Europako Mendebalde katolikoko aurkaritza tenkatu hura itxuraz Euskal Herrian ere hasi zen agertzen, isil-misilean. Horren adierazgarritzat har daitezke 1743-1744.etan Bilbon ahotan zebiltzan zurrumurrak (Labayru 1969: VI, 249-250):

Habían empezado a correr y difundirse algunos escritos contra los jesuitas, y aun querellas al Consejo Real, presentándolos como perturbadores de la cosa pública, y en Bizcaya en calidad de inductores de la defraudación a la Real Hacienda y alteradores de su foralidad.

Aita Jose Corredera San Andres-ko Errektoreak (pentsa dai-teke Probintzialarekin hitz egin ondoren ari zela), txosten-eskari bat aurkeztu zion Jaurreriko Diputazioari, galdera zehatzekin erantzun zehatzak eskatuz (Labayru 1969: VI, 250):

En Diputación del referido día [8 de junio] se presentó el memorial del P. José Corredera, Rector del Colegio de San Andrés de Bilbao, en que se expresaba la injuriosa propalación que se había hecho al Consejo Real de Castilla de que los jesuitas vivían gobernando los pueblos en que residían, de-

fraudando la Real Hacienda y perturbando los fueros bascongados, por lo cual se suplicaba a la Diputación se dignase contestar á estas preguntas:

*Primera.* Si el gobierno de Bizcaya había observado que los individuos de la Compañía se habían introducido alguna vez en su gobierno.

*Segunda.* Si habían dado muestras de querer alterar o improbar sus fueros y privilegios.

*Tercera.* Si sabían que los Jesuítas se habían interesado en el comercio o en los bienes de los vecinos particulares con perjuicio de la Hacienda Real.

Diputazioak Lagundiaren aldeko azalpen ofiziala eman zuen, hiru galderei erantzunez ez ezik Bilbo, Urduña eta Lekeitiko hiru Ikastetxeetako jesulagunen baliozko lanak zeintzuk eta nolakoak ziren esanez (Labayru 1969: VI, 250):

Han dado y dan buen olor de virtudes [...] con aprovechamiento de los naturales en la frecuencia de Sacramentos y extirpación de vicios, buena instrucción y educación de la juventud, consuelo de los encarcelados y de los enfermos con frecuente asistencia en los hospitales y cárceles en todos tiempos y ocasiones, y con especial aplicación en la mayor y más urgente necesidad y última agonía, y otros ejercicios de caridad.

Agintarien balioespenean, bada, ez dira ageri bakarrik Irakaskuntza eta Sakramentu-zerbitzuak, gizarteko bestelako premietarakoak ere aipatzen dira (ospitale, presondegi, etab.). Ikastetxeko zereginera ez zen mugatzen, beraz, hiru herrietako jesulagunen jarduna.

Elizako tirabiratarara gatozela, nahiz eta Lagundia Jaurerrian ongi erroturik zegoen (edo horrexegatik), auzitara deituta ageri ziren Ikastetxe lagunditarrakak, baita Erret Zaingoak bereak zituena elizetan ere; baina epaitegietako hau sarriegi gertatzen ari zen, eta Lagundiak berak eskatu zion Erregeri halako auziak onean konpontzen laguntzeko.

Lekeitioko eliz kabildoari Aranjuez-tik honela azaldu zion Erregek arazoa (1746) (Labayru 1969: VI, 257, eta testua 777):

Por quanto por parte del Procurador General de la Compañía de Jesús se me han hecho varias instancias, suplicándome por los motivos y causas que representa, sea servido mandar a las iglesias de mi Real Patronato, que todos los pleitos pendientes en mi Consejo de la Cámara y que se siguen por ella contra los Colegios de su Religión sobre paga de Diezmos arreglados al derecho común, se transijan y concuerden, he resuelto sobre consultas de mi Consejo de la Cámara mandar que que por ella se escriban cartas a las referidas iglesias, insinuándolas el que se combengan, transijan y ajusten con los Colegios de la Compañía de Jesús, si juzgaren que esto pueda tenerlas utilidad, y combeniencia; previniendo que mi Real ánimo no es precisarlas al combenio, sino proponerlas únicamente los medios de evitar pleitos.

Zuzenbide amankomuna saihestuz, Lagundiak Gortean lantutako proposamena izan zen hori, eta handik kontu handiz iradokia, egon bazeuden kontrako interesak sobera mindu gabe., izan ere agertzen eta indartzen ari baitziren Lagundiaren aurrean edo aurka hala moduzko erresistentziak, handik hogeit urtera Bilbon zeresana sortuko zutenak.

1766an, Lagundia Erreinetik egotzia izan bezperan, Bilboko Kontratazio-Etxea bilduta hogeita hamarren bat merkatari izan ziren Lagundiaren aurka ofizialki auzitara jotzen ausartu zirenak, kasu honetan Aita Calatayud predikariaren idazki baten kariatara.

Bilera eta sinaduren arrazoia zera izan zen (Labayru 1969: VI, 374):

Resentidos en su honor los comerciantes de Bilbao de lo que el P. Calatayud, en sus *Doctrinas prácticas*, había escrito sobre ciertos agios y costumbres de tráfico, que el referido Padre de la Compañía de Jesús, decía observarse en la mencionada villa, celebraron una Junta...

Aita Calatayud-ek zabalduko idazkiaren aurkako merkatarien erabakia ondoko hau izan zen:

Se ocurra por este Consulado al Real y Supremo Consejo de Castilla, a efecto de que se digne mandar recoger el citado libro e impresos de dcho R<sup>mo</sup> P<sup>e</sup> Calatayud en los asuntos notables y de perjuicio del comercio de esta vniversidad y casa de Contratación de esta villa y sus individuos y se Tilde y Borrarre quanto corresponde, [...], se practiquen las diligencias Judiciales y extrajudiciales convenientes y se hagan las representaciones y Recursos conducentes por el síndico y el agente a Corte, disponiéndose, además, se pasase un tanto de este acuerdo al Señorío y Ayuntamiento de Bilbao.

Beraz, zenbateraino ez dakigun arren, Bilbon bazegoen Lagundiarekiko ezinegon interesaturik une hartan, hain zuzen Erreinetatik egotzia izango zen aurreko urtean. Hortaz, Lagundia Penintsulatik eta kolonietatik irazituan (1767), Karlos III.aren erabakiak Hiribilduko Irakaskuntzari on handirik egin ez bazion ere, Bilboko zenbait interes erremindu goxatu zuen, behintzat.

Bilboko eta bilbotar jesulagunek, Errregek hala erabakita, Italiarako bidea hartu behar izan zuten, Gaztelako Probintziako euskal herritarrak aterbea Bolonian eta inguruetan aurkitzen zutelarik. Han bildu ziren izen apala nahiz ospe handiagoa zuten euskal jesulagunak, bertan hil arte, edo onenean erbeste luze baterako.

### **Azken ohar-iradokizunak**

Aldizkarian hiru emanalditan eskaini ahal izan ditugu Bilboko San Andres Ikastetxearen hainbat albiste; baina geratzen da oraindik eginkizunik, iturri ezberdinetatik hau dena osatuz joateko. Jesulagunen Euskal Herriko historiaren parte bat da Bilboko hau. Oharren bat edo beste eginda utzi nahi nuke, ondoren lan berera letorkeenak nahiz irakurleak gogoan izan ditzan.

1. Hemen erabilitako iturri eta bibliografiaren mugak nabariak dira: Hirurtekoetako *Catalogi primi* deituetatik jaso dira albiste berri gehienak. Aita Isidro Sans-en datu-baseaz baliatu naiz horretarako (Loiolan dauden 1584-1764 tartekoak hartuta); hemendik bazter geratu dira gainerako *Catalogi* guztiak, eta, noski, Probintzia eta Etxeetan jaso ohi ziren aldizkako iturri idatzi arautuak (Loiolan ez ezik Erroman ere begiratu beharko direnak) Bibliografian, ostera, Malaxetxebarria ezaguna gida ona izan dut, eta irakurlearentzat orrialdeotan berritasunean zerbait gehiago izan dezake Labairu-ri egin diogun arakatzeko sistematikoak.

2. Hemen apenas ukitu den testuinguru zibilari eta eliztar orokorrari zehazkiago begiratu beharko zaie etorkizunean San Andresen historia hobeki ulertzeko: Bilbo eta Jaurerria, Bizkaia eta bere eliz historia, Hiribilduko beste parrokia eta komentuena.

3. Bilboko gizartea San Andresen egon izan da, herri-eliztar gisara, semeak Ikastetxera bidaliz, eta noiznahi eta une jakinetan ongile-borondatearekin. Hori gabe ezingo zen eraiki eta garatu irakas-proiektu hau.

4. Bistan da Elizaren eta Ordena erlijioso baten Etxea izan zela San Andres: izaera horrek eman zion lehen ofizialtasun segurtatua, betiere unerik garrantzizkoenetan Udala ondoan zuela. Interes eliztar eta zibilek elkarri lagundu zioten, edo elkar oztopatu zuten, egokiera bakoitzean. Oro har, Bilboko Irakaskuntzaren historia hobeki ezagututa landu beharko da San Andresko iragana.

5. Lagundiarekin izandako izan-lotura arretaz begiratzekoa da, horrek berez zekarren baldintza nagusi batengatik ere: Lagundiak Hezkuntza-egitasmu ongi definitua eta zizelkatua moldatu zuen XVI. mendean, hain zuzen ondoko bi mendeetan indarrean egon zen gida, baita Bilbon ere. Berorren eta Lagundiko Konstituzioen argitan ikusi behar da San Andresko Ikastetxea.



6. Bertako Irakaskuntzarena Euskal Herriko testuinguru jesulagundarrean lekutzeko, oraingoz dugun ikerlanik osoena Malaxetxebarriaren liburu aipatua dugu, eta Bilbokoaz hor nabariak diren hutsuneak estaltzeko iturri berrietara joan beharko litzateke.

7. San Andreseko jesulagunen Lagunarteari, Komunitateari alegia, arreta gehiagoz begiratu nahi izan diogu orrialde hauetan, baina ez da aski hori, albistegi begiratu gabeak nabariak direlako (ohar hauetan 1. puntuan iradokiak) eta Euskal Herriko jesulagunen beste Lagunartekin batera begiratzekoak, betiere Gaztelako Probintzia jesulagundarraren barruan.

8. Euskal Herriko Aro Modernoan (1604-1767), Lagundiko Lagunarte eta Ikastetxeek ikerlan handi berri bat merezi dute, Euskal Hegoaldean hamaika (11) Etxerekin eraiki zen hezkuntza-sistema ezagutzeko.

Hemen esandakoek gaiaren garrantziaz ohartarazteko balio lezakete, beharbada.

## **Iturriak eta bibliografia**

Akesolo, L., 1971, “Kardaberaz eta Bizkaia” in Zenbaiten artean 1971, 57-72.

Altuna, P., 1982, “Mendibru (1708-1782). Euskalduna, jasuita, idazlea.”, in Mendiburu 1982: vii-lxxxii.

Altuna, P., 2004, “Aita Kardaberaz Elgorriagaren bizitza”, in Pérez Gaztelu / Zulaika Ijurko 2004: 29-39.

Astrain, A., 1925, *Historia de la Compañía de Jesús en la Asistencia de España*. VII. *Tamburini, Retz, Visconti, Centurione. 1705-1758*. Madrid: Administración de Razón y Fe.

Compañía de Jesús, 1993, *Constituciones de la Compañía de Jesús*, Bilbao: Mensajero. (S. Arzubialde eta besteren edizioa).

- Compañía de Jesús, 1584..., *Catalogi primi*, Loiola: Artxiboa (argitaragabea).
- Demoustier, A.; Julia, D., 1997, *Ratio Studiorum. Plan raisonné et institution des études dans la Compagnie de Jésus*. Paris: Belin.
- Heer, R., 1964, *España y la revolución del siglo XVIII*. Madrid: Aguilar.
- Henao, G., 1637, *Vizcaya illustranda. Ab adademicis Humaniorum Literarum Bilbaensis Schola Societatis Iesu*. Cesareaugustae: Ex Typographia Ioannis a la Naxa.
- Labayru, E., 1967-1969 [1900-1903], *Historia general del Señorío de Bizcaya*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca. (V. eta VI. liburukiak).
- Malaxechevarria, J., 1926, *La Compañía de Jesús por la instrucción del País Vasco en los siglos XVII y XVIII. Ensayo histórico*. San Sebastián: Imp. y Lib. San Ignacio.
- Mañaricúa y Nuere, A. E. , 1973<sup>2</sup>, *Historiografía de Vizcaya*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.
- Mendiburu, S., 1747, *Jesusen Bihotzaren devocioa*. Donostia: Bartolome Riesgo.
- Mendiburu, S., 1982, *Mendibururen idazlan argitaragabeak. Lehen liburukia*. Bilbo: Euskaltzaindia. (P. Altunak paratutako edizio kritikoa).
- Pérez Gaztelu, E.; Zulaika Ijurko, E. (ed.), 2004, *Agustin Kardaberraz. Hirugarren Mendeurrena, 1703-2003*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea.
- Pinedo, I., 2001, “Expulsión de la CJ de España y de sus dominios y exilio en Italia (1767-1814)”, in *Zenbaiten artean* 2001.
- Sans, I., 2011, *Biografías de jesuitas vascos de la Antigua Compañía*. Loiola: Argitaragabea.
- Sans, I., 2011, *Euskal Herriko Antzinako jesulagunen datu-basea*. Loiola: Argitaragabea.

Uribe, A., 1996, *La Provincia franciscana de Cantabria. II. Su constitución y desarrollo*. Arantzazu: efa.

Zenbaiten artean, 1971, *Kardaberaz Aitari omenaldia*. Donostia: Kardaberaz Bazkuna.

Zenbaiten artean, 2001..., *Diccionario Histórico de la Compañía de Jesús*. Roma: Institutun Historicum / Madrid: Univ. Pontificia de Comillas.

*Joseba Intxausti*